

① ELHEKETA : Aste huntako solas bidea.

- 1- Uda eta udazkena noiz hasten dira?
- 2- Izurak zer ikhustari eskaitzen dauku Uda?
- 3- Eta udazkenak?

② UDATIK UDAZKENERAT *

Gure udako itzulia eginik, hemen gira berriz, irakurle maiteak. Udak egin du bere aldia, lekua utzirik udazkenari.

Bi sasoin horietarik, zoin da ederragoa? Udak badu bere iguzki dirdiranta eta samina, eta bazter guziak bethetzen ditu bere argi biziarekin, bainan udazkenak ere badu eztitasun goxo bat, eta aro ephelarekin errexkiago ibilarazten gitu mendietako bide mehar zehiarretan, izerdirik gabe.

Eta gero, zer kolore ederrak; mendi mazeletan¹ iratziak² gorrituak, gaztain ondoen mokotsak eta artho buruen kugulustak³ horituak; ardiak eta behiak gainetako alhapidetatik yautsirik phentziak bethetzen dituzte ttitta xuri eta gorraiekin, loriatuak bazka goxoetan, bere xilintxa⁴ eta yuare⁵ ozelekinekin.

Urria ilhabete ezta, ihiztarien loria; xixpak bere erdoil-duraz garbiturik eta urinduak, hor dira haize hegoaren beha. Usoak, biligarroak, uzkinazoak⁶, pikalaportak⁷, zozuak, apezxoriak⁸, papogorriak⁹, hots, hegaztin mota guzietarik milaka eta milaka iraganen dira errekarri goiti, mendi lephoen buruz, pago eta haritz ezkurrez betherik, beren papoa nasaki ase ondoan. Euntzaro, Ehialepho, Matxarde, Lindux!! gaixo xoriak, itsutuak doatzi beren eriotzerat.

Zoin oroitzapen ezin ahantzizkoak gure egun iraganetarik hain goxoki, han, gure sor-lekian, Luzaide maitian.

Euntzaroko-lephoa, mendi ederra! zer ikhustari xoragarriak hire kaskotik! Zer bazkari goxoa hire pagodi itzalean gerizaturik, ithurriño hotz haren sahetsian, xahakoa¹⁰ urian sarturik!... Gure azpian, alde batetik, erreka zola behean,

hanka eta Urepeleko bazterretxe xuriak, han hemenka hedatuak, bere hegats gorrickin. Beste aldetik, Aitzurreko auzoa, eta urrunago Undarlako bazterretxiak, Udiri, Peloina, Bernatenia, Ortxaix, Gallurru... Eta oraino urrunago, mendi urdin gaitz baten kaskoa. Astobizkar! Astobizkarko kantua! La chanson de Roland! Mendi horren azpian oraino aditzen da gerthakari haundiaren ohiartzuna, eskualdunek zortzigarren mendean Karlomagnoen gudarier izigarriko zafraldiaz emanikako oihiak eta garrasiak.

Gure aitzinian Mendimotx, Adartza. Bainan izerdiak eta akhidurak lotsaturik ez nintzan menturatu¹¹ gain hetaraino abiatzea, ezin yarraikiz ene lagun gazteer, izterrak ez baitira gero zail gure adinean.

Zorionez eskuara ez da hanbat galtzen. Ikhustekoa zen igandetan nola bazterretxetako muttikoñoak ari ziren denak gure mintzaira ederrean. Beraz, ez da berehalakoan galduko. Anen du luzexko. Agian ba!

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Hemen gira 32. Ibil arazten gaitu.

31. Iñautuak doatzi 32. Bethetzen ditu.

31. IZAN - Indicatif Present.

Ni naiz = naiz = Je suis

Hi haiz = haiz = tu es

Zu zare = zira = vous êtes

Hura da = da = il est

Gu gare = gira = nous sommes

Zuek zaizte = zaizte = vous êtes

Heiek dire = dira = ils sont.

32. UKAN - Conjugaison transitive à complémentdirect = pronom personnel - IndicatifPresent

Zuk gaituzu = vous nous avez (s.p.)

Harek gaitu = il nous a

Zuek gaituzue = vous nous avez (pl.)

Heiek gaituzte = ils nous ont

C. P. Ikusten gaituzu = vous nous voyez (s.p.)Imparfait

Zuk ginduzun = vous nous aviez (s.)

Harek ginduen = il nous avait

Zuek ginduzuen = vous nous aviez

Heiek ginduzten = ils nous avaient

Conjugaison Periphrastique

: Ikusten ginduzun = vous nous voyez (singulier poli)